

Lakuak proposatu zuen negoziazio egutegia bete ez duenez, irakasleek grebara joko dute berriro maiatzean

Hezkuntza Sailak ez du negoziaketarako benetako borondaterik. Izan ere, nahiz eta sailburuak medioetan adierazi apirila negoziaketarako hilabetea izango zela, hilabetea amaitzear dagoen honetan, sailak negoziaketa guztiak etenda mantentzen ditu. Beraz, beste behin ere, sailburuak propaganda eta iritzi publikoan eragiteko nahia beste helbururik ez du izan.

Apirilaren 4an izandako azken mahai negoziatzailean Hezkuntza Sailak berak proposatutako egutegia beste behin ere ez duela bete salatzen du LABek. Izan ere, 16ra bitarteko negoziaketa egutegi bat jarri zuen mahai gainean Hezkuntza Sailak, eta, akordiorik ez balitz lortuko, apirilean negoziatzen jarraitzeko egutegi bat ere aurkeztu zuen. Ez da halakorik gertatu, ordea.

Era berean, administrazioak deitutako azken mahai negoziatzailea sinadura baterako izan zela salatu nahi du LABek. Modu horretan, sailak negoziaketarako eta akordioetara iristeko aukera guztiak baztertu zituen. Are gehiago, sinadurarako mahaia apirilaren 10ean intersindikalak (zeinak %90eko ordezkaritza duen) egindako prentsa agerraldian ezezkua eman ondoren bertan behera geratu zen. Hala ere, Hezkuntza Sailak idatzizko proposamen berririk helarazi gabe eta negoziaketarako mahairik deitu gabe jarraitzen du.

Sindikatuak hainbatetan adierazi izan duen bezala, akordioetara heltzeko LABek ezinbestekotzat jo du aniztasunari erantzuteko, hezkidetzarako eta euskara indartzeko neurri eta baliabideetan inbertsioa egitea eta hitzarmen berrian jasotzea. Izan ere, LABentzat estrategikoak izateaz gain, herri gisa eta eskola publikoa ardatz izateko ditugun erronkei erantzuteko behar-beharrezko neurriak dira. Hezkuntza kalitatean eragiteaz gain, hezkuntza publikoa indartu eta egun irakasleek dituzten lan zemetan eragin zuzena izango lukete neurriok.

Maiatzeko grebak iragarri genituenetik ez dugu Hezkuntza Sailaren berririk izan. Datorren asterako Hezkuntza Sailaren deirik egon ezean eta akordioarako edukiak mahai gainean jarri ezean, azken hilabeteetan egin bezala, maiatzaren 12tik 16ra kaleak hartzeko deia mantenduko du LABek, azken greba eta mobilizazioetan erakutsitako indar eta konpromiso berberarekin..